

## AKTA

### Udalaren ohiko Osoko Bilkura

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2019-07-15 (05)  
**ORDUA:** 08:00 – 08:30  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

Alkatea: Luis Maria Egurrola Arakistain (EAJ/PNV)

Zinegotziak: Alexander Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Lander Fernandez Guenetxea (EAJ/PNV)  
Amaya Maria Larrañaga Ugarte (EAJ/PNV)  
Idoya Arrieta Arregi (EAJ/PNV)  
Luis Maria Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Isa Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Eneko Arrate Sololuze (EH BILDU)  
Leire Markuerkiaga Olabe (EH BILDU)  
Garbiñe Idoeta Baskaran (EH BILDU)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementeria Otxandio

#### **AZTERGAIAK:**

- 1.- Aurreko akta onartu eta EH BILDUko Eneko Arrate Sololuze zinegotziaren kargu hartzea.
- 2.- Talde politikoaren eraketaren berri ematea.
- 3.- Alkateak hartutako erabakien berri ematea (Alkate Ordeen izendapena, Tokiko Gobernu-Batzarraren inguruko erabakiak eta zigor espedienteen instruktoaren izendapena).
- 4.- Alkatearen proposamenak (batzorde informatzaileak, Osoko Bilkuren inguruko gaiak, beste erakundeetako kideak izendatzea eta proposamen ekonomikoak).

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legearekin bat etorrira, jasota utzi nahi da behar-beharrezkoa den testua baino ez dela aktan jaso. Bilkuran izandako eztabaida guztien xehetasunak grabatu egin dira eta grabazioa dokumentuaren parte izango da izango, soinu-artxibo gisa.

Markina-Xemeinen, 2019ko uztailaren 15ean, goizeko 08:00etan, eta Udalbatzako Alkate-Lehendakariaren aginduz, Udalbatzako kideak udaletxeko bilkura aretoan bildu dira, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 38. artikuluan xedatutakoa betetzeko; hau da, eraketa saioa ospatu zenetik hogeita hamar eguneko epean, Alkateak Osoko Bilkura saioa edo saioak deitu beharko ditu Udalbatza berriaren funtzionamendua ezartzeko helburuarekin.

### **1.- AURREKO AKTA ONARTU ETA EH BILDUKO ENEKO ARRATE SOLOLUZE ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA.**

EH BILDUko zinegotzia den Eneko Arrate Sololuzeren kargu hartzeari hasiera ematen zaio eta dagokion kargu eta betebeharrak onartu egiten ditu, indarrean dagoen arautegiaren arabera, konstituzioari men egiten diola jasota utziz, legeak hala aginduta.

Jarraian, Udala eratzeko 2019ko ekainaren 15ean ospatu zen Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

### **2.- TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN BERRI EMATEA.**

Alderdi politikoek aurkeztutako idatzien berri ematen da, Euskadiko Toki Erakundearen, apirilaren 7ko, 2/2016 Legeko 34. artikulua bat etorriz. Ondoren zehazten diren pertsonak izango dira alderdi politikoetako bozeramaileak:

- Markina-Xemeingo EAJ/PNV udal taldetik Luis Egurrola Arakistain.
- Markina-Xemeingo EH BILDU udal taldetik Aitor Odiaga Garate

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.

### **3.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA UDAL ANTOLAMENDUAREN INGURUAN.**

2019ko uztailaren 11ko Alkate Dekretuetan Tokiko Gobernu-Batzordeko kideak, alkate ordeak, arlo bakoitzeko ordezkariak eta prozedura zigortzaileen instruktoreak izendatu dira, jarraian azaltzen direnak:

Tokiko Gobernu-Batzarra:

Kideak:

Luis Egurrola Arakistain	Alkatea
Alexander Aretxabaleta Egia	EAJ/PNV alderdiko zinegotzia
Luis Maria Malaxetxebarria Elordi	EAJ/PNV alderdiko zinegotzia
Aitor Odiaga Garate	EH BILDU alderdiko zinegotzia

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Aitor Odiaga Garatek noizbait ezin badu Tokiko Gobernu-Batzarrera bertaratu bere ordezko bezala Isa Mandiola Zuazo arituko da.

Saioen aldizkakotasuna: hilean behin, hilabetearen hirugarren ostegunean, goizeko 10:00etan. Aurretiaz, goizeko 09:00etan, Kontratazio Mahaiaren bilera egingo da, eta bertako kideak Tokiko Gobernu-Batzarrekoak izango dira Alexander Aretxabaleta Egia izan ezik.

Tokiko Gobernu-Batzarrera arloetako koordinatzaile bezala izendatu diren funtzionarioak bertaratu dira, eta baita udal idazkari eta kontu-hartzailea ere.

#### **Alkate ordeak:**

- |                 |                                   |
|-----------------|-----------------------------------|
| 1. Alkateordea: | Alexander Aretxabaleta Egia       |
| 2. Alkateordea: | Luis Maria Malaxetxebarria Elordi |

#### **Arloetako ordezkariak:**

- |                                 |                                   |
|---------------------------------|-----------------------------------|
| Antolakuntza arloko ordezkaria: | Idoia Arrieta Arregi              |
| Lurralde arloko ordezkaria:     | Luis Maria Malaxetxebarria Elordi |
| Hiritartasun arloko ordezkaria: | Lander Fernandez Guenetxea        |

**Prozedura zigortzaileen instruktorea:** Luis Maria Malaxetxebarria Elordi

#### **4.- ALKATEAREN PROPOSAMENAK (BATZORDE INFORMATZAILEAK, OSOKO BILKUREN INGURUKO GAIAK, BESTE ERAKUNDEETAKO KIDEAK IZENDATZEA ETA PROPOSAMEN EKONOMIKOAK).**

**Batzorde informatzaileak:** Alkateak proposatzen du hiru batzorde informatzaile sortzea, *Udalbarria* modeloa jarraituz, jadanik horretan lanean hasi dena, eta hainbat udaletan ezartzen ari dena.

Arloka hiru batzar informatzaile:

Antolakuntza arloko batzar informatzailea: bertako koordinatzailea Gorette Mallagarai Mentxaka udal funtzionarioa izango da eta bere lehendakaria, Idoia Arrieta Arregi arloko ordezkaria. Batzorde honetan Kontuen Batzorde Berezia txertatzen da eta, soilik, Udalaren kontu orokorraren inguruan bilduko da.

Lurralde arloko batzar informatzailea: bertako koordinatzailea Eneida Gantxegi Zialtzeta udal funtzionarioa izango da eta bere lehendakaria, Luis Maria Malaxetxebarria Elordi arloko ordezkaria.

Hiritartasun arloko batzar informatzailea: bertako koordinatzailea Inma Aransolo Arizmendiarieta udal funtzionarioa izango da eta bere lehendakaria, Lander Fernandez Guenetxea arloko ordezkaria. Hiritartasun arloaren baitan kultura, kirola, euskara eta jaien batzorde parte-hartzaileetako proposamenak jasoko dira.

Batzorde informatzaileak hilean behin, hilabetearen bigarren ostegunean egingo dira ondorengo ordutegian:

- Hiritartasuna goizeko 08:00etan.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

- Antolakuntza goizeko 09:30ean.
- Lurraldea goizeko 11:00etan.

Era berean, batzorde parte-hartzaileak hilean behin egingo dira, lehenengo astean, iluntzeko 19:00etan:

- Astearteetan Euskara.
- Asteazkenetan Kirola.
- Ostegunetan Kultura.
- Beharrezkoa denean egingo da Jaien inguruko bilera.

Arlo bakoitza koordinatuko duten funtzionarioak asteartero, goizeko 10:00etan, Alkatearekin eta idazkari eta kontu-hartzailearekin bilduko dira, arlo bakoitzeko gaiak bultzatu eta beharrezkoa den jarraipena egiteko.

Alkateak EH BILDUko bozeramaileari eskatzen dio aipatutako batzordeetan zein zinegotzi izendatuko den jakinaraztea, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakunde Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 125. artikulua xedatzen duen bezala, alderdi politiko bakoitzeko Bozeramaileei eskatzen zaie, Alkateari idatzi bat aurkezteko, honek Osoko Bilkuran berri eman dezan, Batzorde bakoitzean egongo diren alderdi politikoetako kideen adskripzio zehatzaren inguruan.

Batzorde informatzaileei dagokie, Osoko Bilkuratik eta Tokiko Gobernu-Batzarretatik pasatuko diren gaien ikerketa, informe eta kontsulta; honek Osoko Bilkurak delegatutako kompetentziekin jarduten duenean; urgentziazkoak diren akordioak hartu behar direnean izan ezik.

EH BIDU alderdiko bozeramaileak, Aitor Odiaga Garate, adierazten du bere taldeko ordezkariak ondorengoak izango direla:

- Antolaketa: Isa Mandiola Zuazo eta Leire Markuerkiaga Olabe.
- Lurraldea: Aitor Odiaga Garate eta Isa Mandiola Zuazo.
- Hiritartasuna: Eneko Arrate Sololuze, Garbiñe Idoeta Baskaran eta Leire Markuerkiaga Olabe.
  - Euskara: Garbiñe Idoeta Baskaran eta Isa Mandiola Zuazo.
  - Kirola: Leire Markuerkiaga Olabe eta Aitor Odiaga Garate.
  - Kultura: Eneko Arrate Sololuze.
  - Jaiak: Eneko Arrate Sololuze.

Alkateak, EAJ/PNV alderdiko bozeramaile bezala adierazten du bere taldeko ordezkariak ondorengoak izango direla:

- Antolaketa: Alex Aretxabaleta Egia edo Luis Maria Malaxetxebarria Elordi.
- Lurraldea: Alex Aretxabaleta Egia.
- Hiritartasuna: Amaya Maria Larrañaga Ugarte, Idoia Arregi Arregi eta Alex Aretxabaleta Egia.
  - Euskara: Idoia Arrieta Arregi.
  - Kirola: Lander Fernandez Guenetxea.
  - Kultura: Luis Egurrola Arakistain.
  - Jaiak: Lander Fernandez Guenetxea eta Luis Egurrola Arakistain.

Aitor Odiaga Garate zinegotziak galdetzen du ea berdintasuna, jatorri-aniztasuna, turismoa, ingurumena, hezkuntza eta ongizate sailek arduradunen bat izango duten. Alkateak baietz erantzuten dio, eta hauek izango direla hurrenez hurren: Amaya Maria Larrañaga Ugartek berdintasuna eta jatorri-

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

aniztasuna, Idoia Arrieta Arregik turismoa eta hezkuntza, Luis Maria Malaxetxebarria Elordik eta Alexander Aretxabaleta Egiak ingurumena eta Alkateak ongizatea. Hasiera batean, Mankomunitateko batzar guztietara Alkatea bera joango da, liberatuta baitago. Horrez gain, EH BILDUK adierazi du galdetu duen gai bakoitzerako izendatu diren arduradunen berri emango duela.

- **Osoko Bilkuren bilerak:**

Alkatetzak proposatzen du, Osoko Bilkuren bilerak bi hilero egitea, hilabetearen azkeneko ostegunean, jaieguna ez denean, iluntzeko 19:00etan, udaletxeko bilkura aretoan. Hasiera batean ohiko osoko bilkurak urtarrilean, martxoan, maiatzean, uztailean, irailean eta urrian egingo dira. Azaroan suertatzen den bilera irailera pasatu da datorren ekitaldiko aurrekontua onartzeko helburuarekin. Uztaileko osoko bilkura hilabete horretako bigarren asteko ostegunera aurreratuko da eta goizeko 08:00etan egingo da.

Osoko bilkurak bi egun balioduneko aurrerapenarekin iragarriko da, urgentziatzko izaera duten ezohikoak salbu; azken hauen iragarpena udal honen Osoko Bilkurak berretsi beharko du.

Osoko bilkuraren eraketa baliozko izan dadin; alde batetik, Alkatearen eta udal idazkari eta kontu-hartzailearen bertaratzea, edo beraien ordezkioa, beharrezkoa izango da; eta, bestetik, gutxienez, kideen erdiak.

Ospatutako diren bileretan, bertako kideak, eta beraien ordezkioak, leku ezberdinetan egon ahalko dira betiere baliabide elektroniko bidez ondorengoa egiaztatzen badute; kideen edota ordezkioen identitatea, beraien adierazpenen edukia eta momentua, interaktibitatea eta interkomunikazioa denbora errealean era bilkurak irauten duen bitartean baliabideen erabilgarritasuna.

Onartuko diren baliabide elektronikoak, besteak beste, korreo elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak izango dira, 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 17. artikulua ezartzen duenaren arabera.

Horrez gain, lege horren 18.artikuluaren arabera, bilerak grabatu egin ahalko dira. Grabaziotik lortzen den fitxategia, grabazioaren autentikotasunari eta osotasunari buruz idazkariak egindako ziurtagiria eta bilkuran euskarri elektronikoan erabiltzen diren dokumentu guztiak bilkura-aktarekin batera jarri ahalko dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jasotzeko premiarik izan gabe.

Gai hau bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

- **Kide anitzeko organoetan udal ordezkarien izendapena.**

Alkatetzak kide anitzeko organoetan ondorengo ordezkariak izendatzea proposatzen du:

ORGANOA	ZINEGOTZIA
Lea-Artibaiko Mankomunitatea	Luis Egurrola Arakistain eta Isa Mandiola Zuazo (Leire Markuerkiaga Olabe bigarrenaren ordezkogisa)
Landa Garapena	Luis Egurrola Arakistain
Azaro Fundazioa	Luis Egurrola Arakistain
Garapen Agentzia	Luis Egurrola Arakistain
Bilbao-Bizkaia Ur Patzuergoa	Luis Maria Malaxetxebarria Elordi
Bekobenta eskola	Idoia Arrieta Arregi
UEMA	Idoia Arrieta Arregi, Lander Fernandez Guenetxea eta Garbiñe Idoeta Baskaran
Eudel	Luis Egurrola Arakistain
San Roke Egotetxea	Luis Egurrola Arakistain

---

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Gai hau bozkatu ondoren aho batez onartu da eta aipatutako entitate bakoitzari izendapen hauek jakinaraztea adosten da.

- **Ordainsari ekonomikoak:**

Osoko bilkurarako asistentziagatik eta talde politikoentzako ordainsariak (azken honentzat, talde bakoitzak dituen zinegotzi bakoitzeko kantitate finko bat bidertuta) aurreko legealdiko bera izatea proposatzen da.

Gainera, Alkatearen ordainsariak kriterio bera izaten jarraituko du, hau da, udaletxean Alkatea lehen aldiz liberatu zenean ezarritakoa. Horretarako 2011-2015 legealdian liberaziora zuzendutako kantitatea hartuko da erreferentziazat (3.764,34 euro hileko gordina) gaur egunera aktualizatuta. Azkeneko legeladia ez da erreferentziazat hartu, izan ere, aurreko Alkateak ez zen aipatutako kriterioa jarraitu bestelako diru-sarrera batzuk zituelako.

Tokiko Gobernu-Batzorderako asistentziagatik 60 euroko ordainsaria proposatzen da, eta zenbateko bera, antolaketa, lurraldea eta hiritartasuna arloen Batzorde informatikoetara joateagatik. Erabili den kriterioa ondorengoa da: zinegotziei beraien lanpostua utziarazteak sortzen dien galera modu batean konpentsatzea. Aipatutako zenbatekoa zinegotzi guztiei finkatzen zaie eta norbaitek erabakitzen badu ez duela kantitate hori kobratu nahi arlo ekonomikoko arduradunari jakinarazi beharko dio. Ordainketa egiteko egiaztatuko den baldintza bakarra bilerara bertaratzea izango da, ez da fiskalizatuko, lanera joan ez den tartean, bere lanpostuan kobratuko duen edo ez. Izan ere, gai hori, udabaltzako kide bakoitzaren erantzukizunpean geldituko da.

Gai hau bozkatu ondoren aho batez onartu egin da.


---

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 08:30EAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,


Luis Maria Egurrola Arakistain



markina-xemein  
udala

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,

Iratxe Rementería Otxandio



markina-xemein  
udala